



Ikasturtearen azken txanpan gaudenean, berriro Ikastetxeetan LOMCEk inposaturiko kanpo proben inguruan zurrumurru eta egonezak zabaltzen hasi dira.

Hezkuntza Kontseilaria den Mendoza jaunak komunikabideei egindako adierazpenetan 3. eta 6. mailako kanpo probak ez direla eginen ziurtatu duen bitartean ebaluazio diagnostikoa egiteko agindua ikasteetxeetara heldu da. Argitasun eskasarekin; zer eta zertarako den zehaztu gabe; hezkuntza komunitatea ez jakintasunean murgildua utzi duelarik.

Gobernuaren aldaketa eman zenean eta Gobernuari sostengua ematen dioten alderdiek aldaketa garaia heltzen zela zabaldu zutenean, batzuk ulertu genuen lan egiteko, funtzionatzeko eta erabakiak hartzeko modu ezberdinak zetozeela Gobernu honen eskuetatik, hots, hainbat arlotan eta gai ezberdinen inguruan erabakiak hartzeko. Zoritzarrez errealitateak erakutsi digu Hezhuntza arloan garai berriak betiko ohitura txarren menpe gelditu direla.

Idazki hau sinatzen dugun sindikatuok, LAB, STEILAS eta ELAk, Hezkuntza Departamenduak ibilbide honetan jorratu dituen politikak eta Kontseilariak orain arte politika parte hartzailea eta agente sozialen hurbiltasunaren dinamiketatik at gelditu direla uste dugu, gainera hau aldatzeko aukerak behin eta berriro galdu egin dituztela.

Egia baldin bada Mendoza Konseilariak hainbatetan errepikatzen duen Nafarroak LOMCErekin duen “desadostasuna”ren diskurtsoa, ezin dugu ulertu nola orain arte ez duen egin inongo ahaleginik Hezkuntza Komunitateko eragilekin elkartzeko eta LOMCEren aurrean estrateiga komuna osatzeko.

Kalitatezko Hezkuntza Sistema berria lortzeko politika egiteko era ezberdinetan oinarrituta abiatu egin behar da, Hezkuntza komunitatea inplikatzeko prestutasuna agerian utziz eta gizarte mailan dauden sektoreen abotsari aukerak eman, orain arte egin ez dena.

Hori da Mendoza Jaunari eskatzen dioguna, asmo hauek bereak egin ditzan eta ahalik eta lasterren Nafarroaren beharretatik abiatuta LOMCEri aurre egiteko

egitasmoaren definiziorako Hezkuntza eragileekin elkartzeko deia egin dezan, guztion artean proiektu propioa sortzen dugun einean LOMCEren zentralismoa, sexismoa, partidismoa, klasismo eta doitasun pedagogikoaren ezari aurre egin diogu.

Orain da garaia Nafarroatik eta Nafarroarentzat Hezkuntza Sistema propioa edukinez osatzeko; gure hezkuntza defendatzeko; urteetan zehar guztion artean lortu dugun guztia mantendu eta hobetzeko helburuari begira inizatibak martxan jartzeko.

Ez dugu onartzen parte har ez dezakegun hezkuntza-sistema eta bere sostengurako egindako LOMCE Legea, Hezkuntza-sistema demokratiko baten partaide izan nahi dugu.

Ezinbestekoa da akordioa eta hezkuntza-komunitate osoaren konpromisoa proiektuak erabakitzeke, ikasle guztien arrakasta eta kalitatea lortzeko; autonomia behar dugu curriculumak ikasle guztien beharretara egokitzeko, eta hau bideratzeko Hezkuntza Departamenduak oraindik aukera badu, borontatea eta nahia izanez gero gurekin kontatzeko.

Sistema ekitatibo eta inklusiboan sakontzeko beharra dago, jendarteren adostasun zabalean oinarriturik eta ikuspegi integratzailearekin.

Kalitatezko hezkuntza nahi dugu, ikasle euskaldun eleanitzak heziko dituen, jendarteko ezberdintasunak gaitzen lagunduko duena, integratzailea, aukeren berdintasunean oinarritua, parte-hartzailea, gure gizartetik eta kulturatik eraiki eta antolatua.

Beraz Mendoza Kontseilarari gure prestutasuna eta borontatea adierazi nahi diogu. LOMCetik haratago hezkuntza araudi propioa eratzeko. Nafarroako jendarteak eskertuko dio.

Iruñean, 2016ko apirilaren 25a